


FABRIKA

2019-10-05
KASE-NAKURANDIJA 16:30
BTERITIK



Fabrika kale-irakurketa

Irakurraldi hauek egingo ditugu.



FABRIKA

KALE IRAKURRALDIA

URRIAK 5, 2019

16:30 BITERITIK

Sei geltoki lotuko dira ibilaldian,
txu-txu tren berdea erabilita

1. geltokia

PAPERERA

Eziago auzoa - Zikuñaga

Damián Pedrosa

Eli Pagola

Kattalin Artola

Paddy Rekalde

Sonia González

1. Ea zer ari garen fabrikatzen

2. Papera eta kultura

3. Fabrika

4. Atzamarrik gabeko langileak



1.1. Ea zer ari garen fabrikatzen

Bizitza ziklo bat bada
eta unibertsoan “N” bizitza badaude
(egon direnak eta izango direnak barne),
unibertsoa ziklikoa dela esan dezakegu.

Ziklo horietako ibilia
tangenzialtzat hartuko bagenu,
aldira izango dugu
ardatz beretsua baina
posizio eta perspektiba aldatuz.

Industriak, balentzia geruza moduko honetan,
zer ikusia jarri zigun.
Gizartea aldarazi omen zuen,
paisaia aldatu zen
eta geuk paisaia linguistikoa egokitu.

Ametsak fabrikatzea egoki bada,
golda dezagun jolas bat.
Fabrikarekin loturiko espresiorik bururatzen al zaizu?
Ereingo zizuten baten bat,
saia zaitez.
Eta galdegingo didazu:
Hau guztia zertarako? Ba, ezertarako ez.
Artaburu batzuk emakumea sexu makina baino
gehiago dela ulertu ez eta txipa aldatu
ezinik gabiltzalako.

Alegia, zikloan posizioz aldatzen joanagatik
Ibili tangenzialean sekula
Ez garela nukleora helduko.

Ea zer ari garen fabrikatzen.

1.2. Papera eta kultura

Prehistorian ahozketasuna eta belarriak gure memoriaren baliabideak, gero, grabatzeko datuak, harriak eta larruak, kulturaren arrasto iheskorak eta txikiak. Paperaren industriarekin izugarrizko aurrerapena: papera hitz egiteko baliabidea, memoriaren hedapena.

Ikasteko eta kultura transmititzeko tresna hobeezina, gure historia *memoria* bilakatuta paperetan. Paperak liburuaren itxura hartzean *Biblia* bilakatu zen, arauak paperean idatziak, *legeak*; sormena eta fantasia paperetan, gure *poesiak* eta *nobelak*.

Baina... ez bakarrik ondasun kulturala: azkenean *diru* bihurtuta, ekonomiaren jabetza. Jateko lana egiten dugu, paperak irabazteko: paper-diruak munduaren jabetza ahalbidetzen du.

Nahiz eta, gaur egun, transakzio elektronikoak direla medio bere lehentasuna galdu. Aldi berean, mobila, whatsappak eta abar direla medio paper-idatziak ere bere beharra galtzen ari dira.

Gauzak horrela, gure hitzak, paperik gabe, ahulduko dira? Gero eta manipulagarriagoak? Agian birziklatu behar ditugu, bai paperak, bai hitzak?

1.3. Fabrika

Fabrika da

Fabrika lana da

Fabrika produzitzeko lana egiteko da

Fabrika produzitzeko lana egiteko lekua da

Fabrika langileek produkziarako lana egiteko lekua da

Fabrika produzitzeko lana egiteko lekua da

Fabrika produzitzeko lana egiteko da

Fabrika lana da

Fabrika da

Fabrika lana zer den birpentsatzeko tokia da, ideien fabrika gara

Fabrika gu gara

1.4. Atzamarrik gabeko langileak

Non amaitu ote zuten
Non gelditu ote ziren
sasoi batean hain baliagarriak
ziren atzamar horiek.

Produkzio makinan bertan
harrapaturik, hozkaturik, birrindurik
usteldu ote ziren?
Fabrikako arratoi gau-jabeak
ote zuen kumeentzako
afari ederra zulora eroan?
Medikuak “ez dago zereginik” esanda
ontzi metalikora ote zituen bota
saskibaloi jokalaria keinuz?

Sasoi batean hain baliotsuak
ziren atzamarrak:
norbaiti deitzeko,
isilarazteko,
popatik hartzera bidaltzeko,
belarrietako zikina kentzeko,
orgasmoak lortzeko.

Atzamarrak,
hamar hatz,
beti hor izango balira bezala,
mundua ikutzeko eskuak osatzen zuten,
noizbait, urduriak jota egongo
eta atzazkal bat,
atzazkal lasaigarria
faltako zitzaiela
kontziente izan barik.

2. geltokia

BURDINA

Orbegozo

Audre Lorde

Ingeborg Bachmann

Joxe Azurmendi

Oier Guilan

Xabier Gantzarain

1. Ondo ordaindu ziguten

2. Egurra eta txirbila

3. Gure alaba

4. Fabrika zahar bat da iragana



2.1. Ondo ordaindu ziguten

Neu ez naiz akordatzen,
baina lagunek diote aurpegia aldatu zitzaidala,
han, iraganak beretzat hartutako lurraldearen bihotzean,
uda beteko zorionean, hondartzatik bueltan,
afaria prestatzen ari ginela,
telefonoak jo zuenean.

Ez dakit biharamunean izan zen,
edo kapitalak errukiz hartu gintuen,
eta pare bat eguneko tartea eman,
infernuko ateak ireki aurretik.

Lana gogorregia zela,
aspertu egin zirela,
utzi egin zutela,
zerrendan gure aurretik izena eman zutenek,
esan zigun goizeko zortzietan, hortxe,
iraganak beretzat hartutako fabrikan,
laminazioko plantaren sarreran,
infernuko atea jo genuenean.

Uztaila zen, eta geldirik zegoen fabrika,
mantentze lanak behar ditu infernuak ere,
garbitzea, makinak doitzea,
langileei oporrak ematea,
indarberrituta itzul daitezen, batez ere.

Laminazio plantaren erdi-erditik,
porlanezko laukizuzen astunen azpian,

erreka pasatzen zen,
eta makina zorionsuek
hara husten zituzten isuriak eta hondarrak,
ura, olioak, burni hautsa, txirbila,
eta urtean zehar erdoka bihurtutako zikina,
urtebetean infernuak sortu dezakeen guztia,
garbitzea tokatu zitzaigun 10 egunean,
mundua sortzeko behar dena baino
hiruzpalau gehiago,
besterik ez.

Burni hautsa jaten ari ginela sentitu genuen,
lehen egunean, eguerdian etxera itzulita, bazkaritan.
Buruan torloju erraldoiak nituela sartuta,
amets egin nuen gau hartan.

Ez zituzten oporrak hartu langile guztiek,
haiekin batzen ginen aldageletan,
bati begira egoten nintzen ni beti,
guztietan zaharrena zen, zakarrena ere bai,
bizi guztia hemen eramango ote du honek,
nolakoa izango ote du bizitza hemendik kanpora,
zer uste ote du langile klaseaz, harrotasunaz, elkartasunaz,
ez nion sekula galdetu.

Grua baten kateari helduta jaisten gintuzten errekarak,
izterretarainoko botak jantzita, mailu pneumatikoarekin,
erdoka hura hautsi genezan eta uretara bota,
urak urruti eramane zezan,
dena eramane zezan urak:
lanegun luzeen nekea,
gaixotasun latzak,
istripu larriak,
heriotzak.

Baina urak zikin gehiago besterik ez zekarren goragotik,
elkarri egiten genion oihu:
kontuz, olio bota ditek!
Botetan itsatsita geratzen zitzaigun,
buruan iltzatuta geratu zitzaigun,
makinak probatzen hasi zirenean,
nola ihes egin zuen burni goriak bere bidetik,
eta, bihurrituta, nola egin zuen goraka,
gero burrunban lurrera erortzeko,
ez zitzaion ezer gertatu inori, zorionez,
baina guri, buruan iltzatuta geratu zitzaigun,
burni hautsarekin, torloju erraldoiekin,
denboraldi hura infernuan.

Gerora beste infernu batzuk etorri dira.

Ondo ordaindu ziguten,
ehun mila pezeta hamar egunengatik,
toxikotasuna eta arriskugarritasuna tartean,
merezi genuen infernua garbitzegatik.
Finikitoaren paperetan ikusi genuen, gure lanarekin,
ETT bat eta beste bi enpresa atera zirela irabazten,
gu bai langileak, nagusiekin ere elkartasuna!
egin genuen barre edanera joan aurretik,
liburuetako plusbalia zer zen ondo ulertuta,
infernua atzean uzten genuen bitartean.

Uztail hartaz geroztik, dena izan da diferentea,
eta beste uztail batzuk etorri dira.

2.2. Egurra eta txirbila

Ez dut hitzik egin nahi liztortzarrei buruz,
ezagutzeko errazak dira-eta.
Abian diren iraultzak ere
ez dira arriskutsuak.
Zalapartaren segizio,
heriotza adosten dute beti.

Aldiz, kasu, egun bateko euliei eta emakumeei;
igandetako ehiztari,
apaintzaile, zalantzati, asmo oneko,
destainarik jaso gabeei.

Zotzak eta enborrak ekarri genituen basotik,
eta ez zitzaigun eguzkirik atera luzaroan.
Uhal garraiatzaileetako paperaz hordi,
honezkero ez dut ezagutzen ez adarrik;
ez goroldiorik, tinta ilunetan ondurik;
ezta, enbor-azalean zizelkaturik, hitza ere,
egiazko eta ozar.

Zakarretarako papera, pankartak,
afixa beltzak... Gau eta egun,
dardara egiten du fedearen makinak,
izar honen edo haren azpian. Baina egurrean,
berdea den artean, behazunduna;
mingotsa den artean, gertu nago
hasieran zer gertatu zen idazteko.

Zaudete erne!

Airean ateratako txirbilien arrastoei segika doa
liztortzar andana, eta putzu bazterrean,
behin ahuldu gintuen tentaldiari
eutsiko dio
neure ile lastuak.

2.3. Gure alaba

Etxean argi gutxi dugulako
dabil gure alaba
izarretan
kontaduria eramaten,
senarrik izan gabe
mila gizonen andre.

(Gure sukaldeko kea
tximini ahora orduko
galdu da.
Fabriketako ez).

Bainan goizero
itzaltzen dira izarrak,
eta gure alabak
irabazirik ezin aurrerratu.

(Fabriketako adarra
urrun entzuten da.
Pobreen negarra ez).
Gure etxe etxabolan
argi gehiegi da
alabaren pekatua
ikusteko.

Ta argi gutxi.
Nik bakarrik ikusten dut
alabaren negarra.

2.4. Fabrika zahar bat da iragana

Ez dago mundurik hemen.
Hegoa galdu duten torlojuak, zilindroak, hodiak,
herdoila besterik ez.
Jaberik gabeko izerdia.
Itogin itoak.

Non dago jendea?

Non daude hamaiketako irriak
grebarako deiak
goseak
aurpegiz beteriko izenak?

Ez dago mundurik hemen.

Iraganak aspaldi utzi zion ileak kentzeari,
belarrak jan ditu bazterrak.
Zokoetako aleen artetik edozein unetan
alu bat, zakil bat aterako dela dirudi.
Adokin zartatuen ertzetan.
Makina hautsien zokondoetan.
Genitalez beteriko
fabrika erraldoia da iragana.

Non dago jendea?

Denborak bere egin duen segundo bakoitzeko
hauts maluta bat.
Oihartzun lehorra.
Ahaztua izan ala museo bilakatu,
iraganak ez du beste paturik.

Baina non dago jendea?

Non daude atzo hil ala bizikoak ziren galderak?
Non pentsakor uzten zituzten galarrenak?

Adreilua. Eskailera. Horma.
Non dago jendea?

Ez dago mundurik hemen.
Asmatu egin beharko dut bat.

3. geltokia

ADREILUAK

Ariztegi lantegia zenaren orubea

- Andolin Eguzkitza
- Itxaro Borda
- Maria-Mercè Marçal
- Miquel Martí i Pol
- Yolanda Esteve

1. Fregall d'espart
2. L'Elionor
3. Alta velocitat
4. Just Do It



3.1. Fregall d'espert

Drap de la pols, escombra, espolsadors,
plomall, raspall, fregall d'espert, camussa,
sabó de tall, baieta, lleixiu, sorra
i sabó en pols, blauet, netol, galleda.

Cossi, cubell, i picamatalassos,
esponja, pala de plegar escombraries,
gibrell i cendra, sulfumant, capçanes.

Surt el guerrer vers el camp de batalla.

Errauts oihal

Errauts zapia, erratza, lumazko jatsak, /
gandorila, eskuila, karamila, oihal leuna, / ebaki
xaboia, trapua, lixiba, hondarra, / xaboi
errautsa, anilautsa, netola, pertza.

Bainera, ontzia, eta ulu zapagailuak, / xukapara,
zakarren pala tolesgarria, / tanga eta hautsa,
zitroin-gatza, xukadera.

Gudaria borroka zelairantz doa.

3.2. L'Elionor

L'Elionor tenia
catorze anys i tres hores
quan va posar-se a treballar.
Aquestes coses queden
enregistrades a la sang per sempre.
Duia trenes encara
i deia: “sí, senyor” i “bones tardes”.
La gent se l'estimava,
l'Elionor, tan tendra,
i ella cantava mentre
feia córrer l'escombra.
Els anys, però, a dins la fàbrica
es dilueixen en l'opaca
grisor de les finestres,
i al cap de poc l'Elionor no hauria
pas sabut dir d'on li venien
les ganes de plorar
ni aquella irreprimible
sensació de solitud.
Les dones deien que el que li passava
era que es feia gran i que aquells mals
es curaven casant-se i tenint criatures.
L'Elionor, d'acord amb la molt sàvia
predicció de les dones,
va créixer, es va casar i va tenir fills.
El gran, que era una noia,
feia tot just tres hores
que havia complert els catorze anys
quan va posar-se a treballar.
Encara duia trenes
i deia: “sí, senyor”, i “bones tardes”

Leonor

Lanean hasi zenean / hamalau urte eta hiru ordu /
zituen Leonorrek / Gauza hauek odolean / irauten
dute betiko. / Ilea txikordatan zeraman oraino / eta
“bai, jauna” eta “arratsalde on” esaten zuen. /
Jendeak maite zuen, / hain goxoa baitzen Leonor, /
eta erratza dantzatzen zuelarik / kantatu egiten zuen.
/ Urteak, haatik, disolbatu / egiten dira fabrikan, /
leihoen gristasun opakoan, / eta lasterrera Leonorrek
ez zekikeen / erraten nondik ote zetozkion /
negargura eta / aihenatu ezinezko / bakardade
sentimendu hura. / Beste andereek zioten gertatzen
zitzaiona / koskortzen ari zelako zela eta makur
haiek / ezkonduta eta umeak izanda konpontzen
zirela. / Leonor, andereen erakaspén / hain
jakintsuekin ados, / emaztetu eta ama izan zen. /
Ume zaharrena alaba izan zuen, / eta hamalau urte
eta hiru ordu bete berritan / lanean hasi zen. / Ilea
txikordatan zeraman oraino / eta “bai, jauna” eta
“arratsalde on” esaten zuen.

3.3. Alta velocitat

Avui hi ha una certa conspiració en els objectes,
la química dels núvols s'ha tornat incerta,
els colors avers dels llums de l'autopista
trenquen un cel de pols blanc.
El tren camina la pluja
com una agulla que cus el paisatge.
Immòbils, ens mirem als ulls
a dos-cents quilòmetres per hora
i ens besem lentament
dins del blanc més impur.
Mentre, les nostres imatges,
emmarcades per la finestra,
bateguen la llum de les estacions
on mai tornarem a aturar-nos.

I ens movem immòbils
en la quietud de sentir que ja no som.

Abiadura handia

Konspirazio moduko batean dabilta objektuak
gaur, / hodeien kimika ziurgabea bilakatu da, /
autopistako argien kolore zekenek / hauts
zurizko zeru bat apurtzen dute. / Euritan doa
trena / paisaia josten duen jostorratza bailitzan. /
Geldi, begietara begiratzten dugu elkar / orduko
berrehun kilometroko abiaduran / eta astiro
muxukatzen dugu elkar / zuririk zikinenaren
baitan. / Bitartean, geure irudiek, / leihoan
enmarkaturik, / berriz bisitatuko ez ditugun /
geltokien argiak inarosten dituzte.
Eta geldirik bagoaz / jadanik ez garela
sentitzearen jabaltasunean.

3.4. Just Do It

Estirada al llit estret
del pavelló groc
de les clíniques perfumades d'èter,
els ulls, junt a la por de morir,
ens mostraven l'acceptació de la mort.
Sentíem que l'hora de l'últim calfred
arribava apressada,
destruint al seu pas creences,
eixuts desigs, criteris, tota resta de fe.

Vèiem contínuament,
a la sala d'espera de les infermeries,
gent vella que duia roba esportiva
amb la inscripció

Just Do It.

Antigues dones de sa casa
que es mustien en inútils escarafalls,
éssers vergonyants
que mostraven el seu assentiment
en inútils borborigmes,
antics i vigorosos conductors de ramats
que ja mai s'aixecarien de la seva cadira.
Érem testimonis desesperats de la fi del món.

I quan arribàvem a la plaça,
un vell ens saludava alegrement
sacsejant-se el penis
abans de cordar-se els pantalons
després d'orinar a la pujada dels til·lers.

Era la mort qui deia *Just Do It*?

Just Do It

Eterrez lurrineztatutako / kliniketako ganbara
beilegietako / ohe hertsian etzanda, / begiek,
hiltzearen beldurrarekin batera, / hiltzearen
onarpena esaten ziguten. / Sentitzen genuen herio-
latzaren oreña / presaka zetorrela, / sinesteak, desira
idorrak, usteak, fede apurrak / berarekin batera
erraustuz.

Etengabe ikusten genituen, / erietxeetako itxaron
geletan, / *Just Do It* / idatzirik zeramaten / kirol-
jantziz apaindu zaharrak. / Debaldeko espantuetan
higatzen ziren / etxeoandre ohiak, / tripetako
alferrikako haizeez / adostasuna erakusten zieten /
izaki lotsagarriak, / aulkietarik sekula gehiago
zutituko ez ziren / behialako ardi-zaintzaile
indartsuak. / Munduaren amaieraren lekuko
desesperatuak ginen.

Eta plazara heltzearekin, / agure batek poz handiz
agurtzen gintuen, / ezki hotzikaratuen maldan pixa
egin ondoren, / galtzak lotu baino lehen / zakila
astinduz.

Herioa ote zen *Just Do It* zioena?

4. geltokia

TAILERRAK

Papelera del Norte zeneko eskalextrika

Gorka Setien

Ibon Zapiain

Iñaki Armendariz

Pita Amor

Sylvia Plath

1. Madarikazio zenbait

2. Hauts artean, eta urduri

3. Fabrikatu

4. Zentesimaren diktadura



4.1. Madarikazio zenbait (Industria eraikinen aurrean Hernanin)

Madarikatzen dut
behin eta birritan,
enplegu merkantil guztia,
fabriketan, etxeetan, bulegoetan, kaleetan,
ikastetxeetan, taberna, jatetxe, ostatu,
itxaso, ibai, lur eta basoetan
egiten dena.

Madarikatzen dut
behin eta birritan,
hordikeria kontsumista eta etsipenaren fatalismoa,
fabriketan, etxeetan, bulegoetan, kaleetan,
ikastetxeetan, taberna, jatetxe, ostatu
itxaso, ibai, lur eta basoetan
gertatzen dena.

Madarikatzen ditut
pribazioaren, ezberdintasun materialaren, gosearen,
eta gerraren legeek gobernatzen dituzten
banketxeen ekonomia, aseguru etxeak, pentsio planak,
telefonía enpresak, energia enpresak,
eraikuntzakoak, armetakoak, supermerkatuak
eta haiek elikatzen dituzten
egitura administratibo, komunikazio eta
hezkuntzako guztiak.

Madarikatzen dut
sufrimendua, ergelkeria
eta autosuntsiketarako bidea
areagotzen duen
mundu merkantilizatu hau.

Bederen, idatzita gelditu daitezela
madarikazio iraunkor hauek,
eta deskolonizazioaren ametsaren kemenak
gehi bihotzez betetako aliantzek
hedatu dezaten gozamenaren doinuz,
bestelako mundu baten sorkuntza,
munstroaren barrutik eta kanpotik.

4.2. Hauts artean, eta urduri

Hauts artean, eta urduri.
Zergatik ote dator hain urrundik?
Eta nola ote ditu puskaila zaharrez
iragan munduak lotzen?

Hautsak ez dauka helbururik,
hasierarik ere ez duke izan,
badakit beti eduki duela
bere betierekotasun artegan
dena eta izandakoa
ernarazten duen indar ezkutua.

4.3. Fabrikatu

Izan zen behin
auskalo ze urtean

ze urtaroan

idatzi nuena hemen bazirudiela
gauzak (gauzen zentzu zabalenean) hazi orde
hemen gauzak fabrikatu egiten zirela

hari ikustezin baten ernamuinetik habiatzen dira gauzak
(gauzen adiera zabalenean)

tinta lehorreko tristuraren lerroburupean
gorputzak izerditsu
izerdia egoskari
soa gero eta lausoago
ikusitakoa gero eta higtuago
hauts finena bizi-gogoan disolbatuta
denbora mehatxu bilakatu zitzaigun

negarguraren biltegiak beste ezer gorde ezinik eta eserita
irudigile zein letren desesperatzaileak omenaldien zain
(norbaitek asmatuko du musikarekin
gure behar larriei erreparatzen badie)

izan zen behialako bat aurkitu nuena sentipen lurrin eta zurruna:
ezer ez da dirudiena
edozeri deritzogu maitasun

fabrikak hor daude
molde zahar molde berriz

luzarorako daude

4.4. Zentesimaren diktadura

Minutuen joana
luzea izan daiteke
tailer txiki baten
engranajea.

Jakina da arrain handiak txikia jaten duela.
Mekanizazioan berriz, fabrika handiak jaten emango dio tailerrari.
Orain asko, prezioa ezarriz.
Orain gutxi, dependentzia sortuz.

Arte lana izan daiteke mekanizazioa.
Eskultoreen antzera,
materia kenduz gorputza berriak sortu.
Zentesimaren diktadurara errenditutako artea.
Aurpegi paraleloak
H7-dun zuloak
errodamenduak asentatzeko hutsuneak
ertz borobilduak.
Gorpu distiratsua, leuna, perfektua.

Zortzi ordu egunean,
denbora asko da gustura ez emateko.
Taladrina usaina har dezake lankidearen lankidetza ezak.
Burua erotu zaitzake fresagailu baten burrunbak.
Olio eta hautsez jantziko zara.
Txirbil erreak aurpegian halako urradura
sor lezake nagusi baten doako errietak.

Zein tridimentsionalek neurtuko du nagusi baten tolerantzi ezak?

Tailer txikiez osatua dugu industria
minutua segundoz nola.

Olioza ditzagun beraz
gure bizitzaren ordulariaren engranajeak,
minutu bakoitza
60 segundo oso
direla, konturatzeko.

5. geltokia

LARRUA

Atletismo pista ingurua (Montes)

Bitoriano Gandiaga

Eduardo Galeano

Elena Ferrante

Gloria Fuertes

Joxe Kruz Aranberri

1. Gizonak lanera irten du

2. Zer ikasi langile-klaseari buruz

3. Gutuna

4. Larruzko oroitzapenak



5.1. Gizonak lanera irten du

Gizonak lanera irten du,
kioskoan periodikua erosi du,
Metroko eskailera automatikoz behera jaitsi da
ta

Metroan periodikua irakurriz doa:
Astelehenekoa.
Metroko eskailera automatikoz gora irten du gizonak,
presaka sartu da lantegira,
lan egin du lantegian eta
aldatu gabe buzoa,
bazkaltzera irten du. Bidean
ez du agurtu inor. Sartu da
etxean eta etxetik
lanerako irten du
presaka presaka.
Metroko eskailera automatikoz behera jaitsi da
ta

Metroan lo-kuluxka doa. Metroko
eskailera automatikoz gora irten du gizonak,
presaka presaka lantegira sartu da;
lan egin du lantegian eta
bukatu du eguneko lan-aldia. Txikito bat
edan du bidean eta etxean sartu da. Gizonak
lanera irten du presaka presaka;
kioskoan periodikua erosi du; Metroko
eskailera automatikoz behera jaitsi da
ta

Metroan
periodikua irakurriz doa: Asteartekoa.

Metroko eskailera automatikoz gora irten du gizonak,
presaka presaka lantegira sartu da
ta

lan egin du. Gizonak
atzoko lan-modu bera egin du,
atzoko bizi-modu bera egin du presaka presaka.

Bihar

kioskoan periodikua erosiko du: Asteazkenekoa.
Metroko eskailera automatikoz behera jaitsiko da
ta

Metroan periodikua irakurriko du herenegun bezala.
Metroko eskailera automatikoz gora irtengo du gizonak,
presaka presaka lantegira sartuko da
ta

aurreko astean bezala, lan-modu bera egingo du,
bizimodu bera, aurreko urtean bezala.
Etzi Osteguneko periodikua erosiko du.

5.2. Zer ikasi langile-klaseari buruz

Ez dakit deus langile-klaseari buruz,
lantoki dudan fabrikako langileak baino ez ditut ezagutzen,
eta horiei buruz ez dago deus ikastekorik,
miseria besterik ez.

Imajinatu dezakezue
zer izan daitekeen
egunean zortzi ordu ematea
gerriraino sartuta
larrukiak egosteko uretan?

Imajinatu dezakezue
zer izan daitekeen
behatzak zauriz beterik izatea,
eguna animalien larruei haragia kentzen
ematearen ondorioz?

Imajinatu dezakezue
zer izan daitekeen
zero azpitik hogeit hamar gradutan dauden
hozkailuetan sartu-ateran ibiltzea,
zer eta orduko hamar xentimo —hamar xentimo!— kobratzeko,
hotz-osagarri gisa?

Imajinatzen baduzue,
zer uste duzue ikas daitekeela
modu horretan bizi behar duen
jendeari buruz?

5.3. Gutuna

Pobre maiteok:

Jaso nituen zuen gutun guztiak,
idatzi ez zenizkidatenak ere heldu ziren,
etxe merkeetatik datorren haizean zehar,
bazter herrixkatik datorren haizean zehar,
lantegitik datorren haizean zehar,
meatzetik datorren haizean zehar,
txalupatik datorren haizean zehar,
herritar xume hautatuok, badut gertatzen zaizuen guztiaren berri.

Lanbidea duzenok,
aldamiaoa zapaltzen duzenok,
erremintarekin modu txoroan zauritzen zaretenok,
arroza edo txitxirioak egosten dituzuenok,
txalupan egunez eta gauez lo egiten duzenok
guri arraina ekartzearren.

Zuen gutunak jaso nituen, nekazariok,
zuen salmoak jaso nituen, mahats-biltzaileok,
eta baita zuen albisteak ere, arrantzaleok,
badut egiten duzuen guztiaren berri eta gertatzen zaizuena dut bihotzean,
jakinarazitzat jotzen dut soldata batzuk igo direla
eta hala ere ez zaizuela iristen;
eta sua eta ura kokotsaren parean dituzuela
eta ahotsik ez zaizuela iristen nirea ez bada,
baina goizero lana iristen zaizuela
eta osasuna gorputzera
eta beste seme-alaba bat, zorionak.

Esaten didazuenaz nik ezin dut ezer egin.
Soil-soilik letra-jendeak horretan ari direla gogorarazi,
marrazten zaituztela, nire pobreak, ulertzen zaituztela,
horretaz guztiaz arduratu nahi dutela,
zuen gutun laburretan diozuen guztiaz,
eta ministroei idatziko dietela.

Eta gaurkoz besterik ez, lagun pobreak,
bizitzako onena zarete, hura goratzen dutenak.
Zuek ere barne zarete, bulegora joan ohi zaretenok,
barazkiak saltzen dituzuenok eta etxeak eraikitzen dituzuenok,
autoak gidatzen dituzuenok, urez erregadiatzen duzuenok,
milaka lanbidetako pobreak ez zaudete bakarrik;
 hona hemen kantatzen dizuen poeta bat,
 gero beste batzuk etorriko dira.

5.4. Larruzko oroitzapenak

Nola josi zuri beltzeko oroitzapenak,
Zintzilikaturiko behi larru haien kolorekoak.
Haragi puskez horniturik zetozen larruak gatzetan:
Zenbat sabel gose baretu soberakin haiek!

Ezin ahaztu
Usainen nahasmena betetzen zuen giroa
Tinta kimikoen grina
Haragi ustelduen kiratsa
Ur zikinen lurrina
Eta sekula gelditzen ez ziren makinaren beroa.

Gogoan ditut
Soberako ileak kimikaren hatzetan
Larruak bi mende aurreko makinaren hortzetan
Tindatuak izaten metroko pertzetan
Lehortzen zintzilik iltzetan
Oinak deseroso putzu hezetan
Neurriak hartuz oinetan
Azken bukaera emanez prentsetan
Urak eta lotsak ihesi doazela erreka beltzetan
Erori aurretik txinatarren atzaparretan.

Iruditan datozkit
Lau dozena langile
Zigarroa ahoan
Ardoa gertu
Ogitartekoa esku likitsez
Eta lan gogorraren lizunkeriaz,
Hildako hari bigarren bizitza bat eman nahian
Hiri garbien espaloietan
Hirugarren baten oinetan.

Badira ia bi hamarkada
Alacanteko zapatagileek
Ez dutela hemen landutako
Larrurik josten.

6. geltokia

UGAZABEN ETXEAK

Nere Borda parkea

- Andoni Tolosa
- Angela Figuera
- Antonio Casado da Rocha
- Amaia Lasa
- Garbiñe Ubeda

1. Aingeruen zuzenbidea
2. Neskame jantzia
3. Black & white pudding
4. Lana eta lana



6.1. Aingeruen zuzenbidea

Kantatzen diot Etxeko Andreari,
hain zuhurra eta dexentea gaxoa,
hain inportantzia gabekoa,
ardi mantsoaren itxura daukana,
haurrei deiadar egiten baldin badie ere.

Lixibak bigundurikako haren eskuari ere
astelehenetan eta astearteetan,
asteazkenetan eta ostegunetan, orratzak pikaturikakoak,
ostiraletan plantxak errerikakoak,
baratzuriak eta tipulak igurtzirikakoak.
(Larunbata berebiziko eguna da:
Ezkaratza garbitu, bi egunerako erosi,
eta seiretan, atzazaletan barniza,
zinema merke batera joan
gizonaren besotikan).

Etxeko Andreari kantatzen diot
goizeko zortzietan,
arduraz partitzen duelarik
armozuko esnea,
erdi-apurturikako taza sakonetan.
(Joaniko asko haunditzen da aspaldi honetan:
Harentzako parterik hoberena).

Etxeko Andreari kantatzen diot,
orain hamabost urte hain polita izan zenari,
orain triste xamar edertasuneko kontseiluekin
barre egiten duenari.
(Emaiozu egunero biloari
ordu laurden bat).

Etxeko Andreari kantatzen diot,
suma eta suma egiten duenari, herraturik,
laurogeita bost, eta bederatzi daramazkit...
zeren joan diren ehun pezeta,
eta oraindik ez diot ikazkinari pagatu.

Etxeko Andreari kantatzen diot,
gauean ohera joaten denean,
ez baitu errosarioa inoiz bukatzen.
(Dolores beti beste argal dago,
Joaniko gaizki dabil estudioekin,
eta ttikienari ipurdiko haragiñoak
ikusten zaizkio, bai).

Etxeko Andreari kantatzen diot,
hain nekaturik lokartzen denean,
aingeru zuri eta atseginak
etorten baitzaizkio kontsolatzera.

6.2. Neskame jantzia

Paisaia dantesko hartan,
igandeetako soinekoa erantzi behar izan nion amonari,
neskame jantzi nuen,
paper-fabrikako jabearen etxean
zerbitzitzen zueneko moduan atondu.
Begirada apaldu nion.
Gurutzea lepotik zintzilikatu.
Hilotz berria ageri zaio geroztik alboan,
anabasan dauden gainerako gorpuak baino hurbilago,
terribleago,
itzalaren antzean atxikita.
Haren beste ni-a da,
haren alter ego-a,
gerra aurreko amona Aurora,
Aurora galtzailea,
izateko eskubiderik gabe gelditu zena.
Hark berak akabatu behar izan du.
Bizirauteko.
Aurrera egin ahal izateko.
Umeak dituelako.
Zer egingo ote zenukeen zuk haren tokian?
Zer egin ote zenuen zuk,
galtzaileen artean galtzaile, zinen tokian...?
Zirkunstantzien arabera,
hil bailiteke erabat desagertu gabe.
Eta desagertu bailiteke hil gabe.
Eta hauts bihurtu, lurrarekin bat egin,
akabatu, zendu, eta gainera desagertu,
deuseztatu, hutsarekin funditu.
Eta, norbere buruaz beste eginagatik ere,
fisikoki mundu honetan gelditu, jakina.

6.3. Black & white pudding

Oporraldi batean Irlandan
ferrytik irten berritan biok
Corken gosaltzera joan ginen:

industriaz iritsi zen kafea,
industriaz patatak eta tea.

Bi full Irish breakfast eskatuta
eseri ginen garai pobreak
gogoratzen zituen pub hartan

(garabiak jiraka oraindik,
goiz zen garagardotan hasteko).

Jengibrezko galletak kikiran
busti eta Corpus Christi esanez
elkarri ahoratzen genizkion:

jateko zein edateko eran
katolikoak ginen orduan.

Plater bana jarri ziguten:
arrautzak, hirugiharra eta
saltxitxa, tomate, txanpinoiak

eta ezagutzen ez zenuen
txerriki borobil frijitua.

“Zer da hori?”. “Ba, black and white pudding,
hemen jan ohi duten lukainka”.

“Meh”, erantzun zenuen. Baina orain

bi zirkulu marraztuko dizkizut:
bata zuria, beltza bestea.

Bertan daude Kerryko uztaila,
bisitatu ez genuen Martello
dorrea eta Yeatsen poema:

Ekhiren urrezko sagar horiek,
ilargi laranja zerumugan.

“Irlanda berdeagoa balitz
erradioaktiboa liteke”,
esan zenuen behin batean

baina luzeago irauten dit
gogoan black and white pudding horrek:

kea, odola eta piper hautsa
zaporea; eta mami hori,
ogia egin berriarena;

“zuria nahi duenak, beltza
ere jaten ikasi behar du”,

hala esan zuen aita izan zenak,
baserri batean jaio arren
bizitza lantegian emanda;

goseak bultzaturik, fabrika
eta herrimina besarkatuz,

zuria eta beltza balantzan.

6.4. Lana eta lana

Lana lana da dio txartel batek
komisalgoko aldagelan
aparkalekua autoz lepo dago
eta ziegak solairu bat beherago
ez baita lanik falta lana nahi duenarentzat

lana lana da nahiz eta kaputxa jantzi

munduan ez dadila bakea egin
neuk erretiroa hartu baino lehen
urte gehiegi tanke lantegian
aurrera ateratzen ene familia
eskulana behar baitute asmakizun ilunenek

lana lana da nahiz eta kaputxa jantzi

langile bat etorri zaigu etxera
bertatik botatzeko agindua eskutan
lan gogorra ote den galdetu diot
neu orain lan bila nabil eta
hobeto ordainduta daude isilpeko lanbideak

lana lana da nahiz eta kaputxa jantzi

Testu hauek
Hernanin irakurri ziren
jendaurrean
2019ko urriaren 5an
Fabrika izeneko
ekitaldian

Testuotako batzuk itzulpenak dira,
eta eskerrak eman nahi dizkiegu
honako itzultzaileoi:

Fernando Rey, Gabriel Aresti, Iñigo Astiz,
Itxaro Borda, Josu Landa, Koldo Izagirre,
Montserrat Abelló, Nagore Tolosa



testuak
aukeratzeko:

